

txintxarri.info  
web gunea  
berritu du

TXINTXARRIren edizio digitala, www.txintxarri.info, berritua izan da. Paperezko aldizkarian aurki ditzaitezun atalak, zorion agurrak, farmaziak, albisteak... hau guztia, egunerokotasun osoz. Eta honetaz gain, berrikuntza ugari ere baditugu. /4



## D3Mren aldeko sinadura bilketa Lasarte-Orian

■ Urtarrila 24a bitartean, Udaletxeko idazkaritzan eta notaritzan egin daitezke sinatzea



Joxe Goikoetxea D3M plataformaren aldeko sinadura ematen, asteazkenean.

Asteazkenean, Lasarte-Oriako ezker abertzaleak Demokrazia Hiru Miliroi (D3M) plataformaren aldeko sinadura bilketan bere harritxoak jarri zuen.

Okendotik kalejiran atera eta Udaletxeko idazkaritzara egin zuten sinadurak emateko. Honen helburua, martxoaren 1an burutuko diren Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan ezker abertzaleak ordezkari izan dezan da.

### 17.760 sinadura

Urtarrilaren 10ean aurkeztu zen D3M plataforma berriak, Hauteskundeetako Erregimen Orokorreko lege organikoak dioenaren arabera, lurralde bakoitzean errolatutako herritarren %1aren sinadura behar du hauteskundeetara

aurkezteko. Honela, Gipuzkoan 5.749 sinadura behar ditu eta Euskal Autonomia Erkidegoan, guztira 17.760

### Deialdia

Horregatik, ezker abertzaleak lasarteoriarrei D3M plataformaren aldeko sinadura bilketan parte hartzea egin die deialdia.

Honetarako, urtarrilak 24a baino lehen, bi lekuetara jo behar da ondoko egun eta orduetan: Udaletxean, asteazkenean soilik, goizean 8:30etatik 14:30etara eta arratsaldean, 16:30etatik eta 20:00etara; notaritzan, berriz, goizez 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldean 18:00etatik 19:00etara, ostirala izan ezik. •

## Ondorio ikusgarria

Asteartean txundituta geratzen zen jendea, eliza ondoko etxe berrietako paretan zuloa zegoela eta. Eta oraindik harrituagoak hurbildu eta barruan kotxea zegoela ikusita. Lasarte-Oriako udaltzainek azaldu digutenaren arabera, astelehenean, gau aldean, kotxe eta motor baten arteko istripuaren ondorio ikusgarria izan zen. Dirudienez, biek debekatutako ekintzak burutu zituzten eliza ondoko bidegurutzean: kotxeak ezkerrean egin zuen eta motorra aldi berean marra jarraitu bikoitzean aurreratu hasi zen. Autoko gidariak motorraren kolpea sumatzean, balaztatu nahi, baina azeleragailuari eman, paretaren kontra jo eta etxearen barru alderaino sartu zen. •



### ALBISTEAK ■ 3

**Hondakinen euskal legearen aldeko sinadura bilketa**

### ERREPORTAJEA ■ 5

**Palestinar herriaren egoera salatzekeo konzentrazioa**

### KIROLAK ■ 6

**LOKEko judokak dominak eta sailkapenak barra-barra**

## GURUTZETA SAGARDOTEGIA

**SAGARDOA ZER DEN BALDIN BADAKIZU,  
EDERKI ANTZEMANGO DIOZU GUREARI**


TRADIZIOA ETA BERRIKUNTZA, SAGARDO NATUREALEAN

Zatoz  
txotx egitera!

Oialume bidea 63 • Tel.: 943 552242 • Faxa: 943 552292 • ASTIGARRAGA (Gipuzkoa)  
gurutzeta@gurutzeta.com • www.gurutzeta.com



**Zorion-agurrak**



**Borja**

Zorionak guapo! Zortzi muxu handi guraso-en eta Daviden partetik.



**Haizea**

Mila zorion etxeko panpoxari, Naroa, Andrea eta familiaren partez. Pastela zure kontu.



**Maider**

Zorionak bitxito zure I. urtebetetzean. Musu erraldoia aitaxo eta amatxoren partetik



**Ane Miren**

Zorionak zure 2. urtebetetzean. Txokolatetzeko bi musu Unax eta Garaziren partetik.



**Nerea**

Hamar muxu handi etxekoan partetik.



**Aritz**

Zorionak eta bi musu aitaxo, amatxo, aïtona, amona eta Anderren partetik



**Naroa**

Txokolatetzeko bederatzita muxu handi sorgina. Aitor, ama eta aitaren partetik.



**Maite**

Libratuko zinela uste zenuen? Zorionak eta muxu handi bat!



**Arantza**

Zorionak guapa! Adin hori izateko oso ondo mantentzen zara! Kongitoak izango dira!

**Jaiotzak**

Aratz Fuentes Ramos, urtarrilaren 11n  
Gorka Marina Del Arco, urtarrilaren 11n  
Jon Marante Martija, urtarrilaren 7an  
Naroa Crespo De la Cruz, urtarrilaren Sean



**Heriotzak**

Evaristo Tolosa Zabala, urtarrilaren 12an, 71 urte zituela



**Azoka txikia**

**Eskaintza inmobiliarioak**

• Lasarte-Oriako zentroan pisu bat eta garajea alokatuko nituzke. Harremanetarako zenbakia, 686 674 553.

• Atsokarren garaje plaza bat alokatzen dut. Tamaina handikoa, kotxe familiarra edo furgoneterako aproposa. Harremanetarako zenbakia, 943 376 115.

• Pisu salgai Iruran. 3 gela, komuna, sukaldea eta egongela. Dena kanpoaldea eta eguzkitsua. Berogailua eta armairu enpolutuak ditu. Tel.: 695 785 153.

• Lasarte-Orian, Zumaburuko auzoan, logela bat alokatzen da etxe biziaren batean. Harremanetarako zenbakia: 600-612085

**Salerosketak**

• MONTY txirrinda urdina salzten dut, garbia eta kolperik gabea eta 5 eta 9 urte arteko haurrentzat aproposa dena. Salneurria 60 euro. Deitu 943 366 435 edo 627 358 898 telefono zenbakietara.

• Salgai Suzuki Vitara 1.9d diese-

**Oharretarako:**

943 366858 • Geltoki kalea 4 • txintxarri@ttakun.com • www.txintxarri.info • www.txintxarri.iragakilaburak.com

la, deskapoteable, 1999. Urtekoa eta 178.000 km. Harremanetarako zenbakiak 616 333 017 edo 666 116 333.

**Lan-eskariak**

• Pertsona arduratsua eta klinika laguntzaile, geriatraia eta psikologia esperientziadunak pertsona adinduak zainduko lituzke. Tel.: 680 983 527, Karlos.

• Bigi Garbitasunak. Alfonbrak, etxeak, bulegoak, etab. garbitzeko prest gaude. Deitu inongo konpromezurik gabe. 638 944 604 - Irene- edo 695 708271 -Itsaso-.

**Bestelakoak**

• Bajista baten bila gabilta rock talde bat egiteko. Jotzeko tokia Lasarten daukagu. Rock dantza-garria egitea gustatuko litzaziguke Funky pixkat ere erabiliz. Interesatuek, deitu telefono honetara: 617 265 307, Josu.

**KAZETARIA BEHAR DA**

TXINTXARRI aldizkariak kazetari bat behar du. Interesa dutenek, bidali kurrikuluma txintxarri@txintxarri.info helbidera edo deitu 943 366858 telefonora.

**Guardiak**

**Ostrala, 16**

Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

**Larunbata, 17**

Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567

**Igandea, 18**

Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567

**Astelehena, 19**

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371 151

**Asteartea, 20**

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

**Asteazkena, 21**

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Osteguna, 22**

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Telefonoak**

**Osasuna / Larrialdiak**

Osasun Zentroa ... 943 007960  
DIYA ... 943 370000  
Gurutze Gorria ... 943 363953  
Udaltzainak ... 943 362442  
Ertzaintza ... 943 288888  
SOS Deiak ... 112

**Udala**

Erregistroa ... 943 376055  
Euskarako Zerbitzua 943 376184  
Kirolegia ... 943376182  
Kulturetxea ... 943376181  
Bakezko epaitegia ... 943371629  
Zerbitzu Sozialak ... 943376179  
Zentro Zibikoa ... 943363958  
KIUB ... 943361605  
Udal euskaltegia ... 943361621  
Obrak eta zerbitzuak ... 943 376180



www.gipuzkoangazte.info

**Errenteriako Udalerako Zuzenbidean lizentziadun lanpostua**

Errenteriako Udalean Zuzenbidean lizentziadun lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia. Bete beharreko baldintzak honakoak: Zuzenbidean lizentziaduna izatea eta euskarako 4. hizkuntza-eskakizuna izatea. Izena emateko azken eguna urtarrilaren 23a da. Informazio gehiagorako jo Errenteriako udalera, Herriko plaza z/g; tel.: 943 449600; faxa: 943 449650; e-maila: info@errenteria.net; web orrialdea: https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2008/12/18/e0813950.htm eta http://www.errenteria.net.

**Arkitekto lanpostu bat Hernaniko Udalerako**

Hernaniko Udalerako Arkitekto lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa. Bete beharreko baldintzak: arkitekto titulua izatea eta 4. hizkuntza-eskakizuna izatea. Izena emateko azken eguna: 20 egun natural BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Informazio gehiagorako jo Hernaniko Udalera, Gudarien plaza 1; tel.: 943 337000; faxa: 943 551141; e-maila: erregistro@hernani.net eta web orria: https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2008/12/22/e0813911.htm.

**Urnietako udal kiroldegiko taberna-jatetxearen ustiapena esleitzeko deialdia**

Urnietako udal kiroldegiko (Ozta-rian bailara) taberna-jatetxea osorik kudeatzeko eta ustiatzeko deialdia. Esleipenaren iraupena: kontratu honek kirol instalazioak berri-tzen hasi bitarteko iraupena izango du; nolahi ere, bi urteko gehienezko iraupena izango duelarik. Aurkezteko azken eguna, urtarrilaren 20a. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo Urnietako udalera: San Juan 5; tel.: 943 000800; web orria: https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2009/01/05/e0814398.htm.

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



**Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea**



Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria. 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: S5513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com. Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



# Hondakinen euskal legearen alde sinadura bilketa martxan dago

Lasarte-Oria Bizirik taldeak Errausketaren Aurkako Koordina-kundearekin batera, hondakinen gaikako bilketa intentsiboa ezarri, materia organikoaren bilketa sustatu eta honekin ongarri naturala egin dadin Eusko Legebiltzarrean Herri Ekimen Legegilea (HEL) erregistratu zuen urte amaieran. Orain, Legebiltzarrean gai hau hizpide izan dezaten ekimenak 30.000 sinaduren babes behar du.

## TXINTXARRI

Errausketaren Aurkako Koordina-kundeak aurkeztu duen ekimen legegileak herritarren babes behar du. Horregatik, Lasarte-Oria Bizirik taldeko kideak herriko kaleetara aterako dira sinadurak biltzera. Bihar hasi eta martxoa bitartean, larunbatetan herriko auzoetan izango dira sinadurak biltzen, 12:00etatik 13:30etara. Bihar Okendon izango dira, ondoren Zabaletan (urtarrilak 24), Oztaran eta Arranbiden (urtarrilak 31), Zumaburuan (otsailak 7), Sasotan (otsailak 7), Basaundin (otsailak 28) eta Okendon beriz ere (martxoak 7). Hala ere, leku edo egun aldaketarik balego, horren berri emango lukete.

## Lege proposamena

Errausketaren Aurkako Koordi-



Milaka pertsona bildu ziren errausketaren aurkako manifestazioa egiteko, 2006ko azaroaren 25ean, Lasarte-Orian.

nakundeak Herri Ekimen Legegileak errausketa ukatzen du. "Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin horien ustiapena ez da inolaz ere errausketa izango. Hiri-hondakin solidoak eta, batez ere, plastikoak erraustean sortutako igorpenak ikertzen ari direnez, ez dago bermatuta ingurumenean ondorio kaltegarriak sortzen ez denik". Hori dela eta, errausketaren aukera alboratzen dute.

HEL-ak udal-hondakinen gaikako bilketa intentsiboa

jazotzen du. "Bilketa berria honek osagai birziklagarri guztiak berreskuratzea du helburu. Ohiko bilketa sistemak ez dira nahikoak, partzialak direlako (zaborreko osagai birziklagarriak baino ez dituztelako tratatzen). Horren ondorioz, birziklatu daitekeen zabor-fluxua mugatzen da".

Honen harira, "bertan jasotzen den materia organikoarekin konposta, ongarri naturala, egin beharko litzateke". Koordina-kundeak hondakinen gai-

kako bilketa intentsiboa hobetzeko, atez-ateko bilketa proposatzen du, "bilketa eraginkorragoa delako".

## Hitzaldiak

Lasarte-Oria Bizirik taldeko kideek gai honen inguruan hitzaldiak eskaintzeko asmoa dute. Beraz, elkarteren batek euren egoitzan hitzaldi bat antolatzeko interesa edukiko balu, Xabirekin (676324746) edo Javirekin (943373369) harremanetan jar daiteke. •

## IKASTAROAK

### KZgunean doako ikastaroak

KZguneak interneten nabigatzen ikasteko aukera eskaintzen du doan eta etxetik hurbil. Internet erabiltzen ikasteko eta nabigatzeko behar diren instalazioez hornituta dago, eta guztia erabiltzaileentzako kosturik gabe.

Hilabete honetan eskainiko dituzten mintegien iraupena 2 eta 4 ordu bitartekoak dira: Sinadura elektronikoa, Justizia ezagutu ezazu, Kontsumitzaile sarea, Bat-bateko mezularitza, Via Michelin-ekin mezularitza, KZguneako foroak eta laguntza, Komunikatu posta elektronikorekin bidez.

Bestalde, otsailan burutuko diren Nagusi eta E-administrazioa KZgunea ikastaroak ere azpimarratu behar dira, bigarrena ikastaro pilotua baita. Gainera, honetan izena emateko Nagusi ikastaroa egin behar da aurretik.

Hauetan guztietan, izena emateko KZ gunea hurbiltzea besterik ez daukazu. KZgunea Oriamendi plazan, 2 zenbakian dago eta bertara hurbilduz edo kzgunea.net web orrialdean Lasarte-Oriako zentroaren atalean sartuz mintegi hauei buruzko informazio gehiago eskuratu dezakezue. •

## HAUTESKUNDE ZERRENDA

### Kontsultak eta kexak egiteko epea ireki da

Martxoaren 1ean, Euskal Legebiltzarreko Hauteskundeak izango dira eta Lasarte-Oriako udalak hautesle erroldak ikusgai jarri ditu. Erakustaldi honen helburua herritarrek erroldako datuak zuzenak direla egiaztatzea da.

Hautesle-errolda urtarrilaren 12an jarri ziren ikusgai eta astelehenera arte egongo da herritarren eskura. Errolda datuak kontsultatu nahi duen lasarteoriarrak argazkia duen NANA, pasaportea edo gidabaimena erakutsi beharko du.

Zerrendan agertzen ez den herritarrek erreklamazioa egin dezake, baita gaizki erregistratua badago edo zerrendan agertu eta bertan egon behar ez duelako ere. Hautesleak berak edo behar bezala baimendutako pertsona batek aurkeztu eta sinatu behar du kexa, eta N.A.Naren, gidabaimenaren edo pasaportearen fotokopia erantsi behar dio. Hau guztia, zerrendak ikusgai dauden bitartean egin daitekeela azpimarratu behar da. •

## Gaurko Jam sesioan Iban Nikolaiaren musika etnikoa

### TXINTXARRI

Jam sesio berezia izango dugu gaur Jalgi Kafe-antxokian 22:30ean. Iban Nikolaiaren didgeridooaren doinuez eta musika etniko eta tribalaz gozatzeko aukera paregabea izango da gaurkoa.

### Iban Nikolai

Londresera egindako bidaiaren batean ezagutu zuen didgeridooa Iban Nikolaiak eta autodidakta gisa ikasten hasi zen. Ondoren klase eta tailerretan parte hartu du Australian eta Europa zehar.

Egun, didgeridooaren erabilerak irakatsi eta kontzertuak eskaintzen ari da, hauetan Nikolaiak didgeridooaren soinua musika estilo desberdinekin bateratzen du, hala nola, folk, rock edo teknoa, estilo pertsonala eta bereizgarria sortuz.

### Didgeridooa

Baina zer da didgeridoo? Munduko haizezko instrumenturik zaharretakoa da eta Australiako aborigenen kulturatik dator. Izen desberdinak ditu, yidaki edo yurlunggur, esate baterako.

Aborigenek termitek naturala zulatutako enbor hutsa erabili ohi duten beraien kantu, ospakizun eta ritualetan instrumentu laguntzaile gisa, batek abestu eta makilak jotzen dituen bitartean, besteak didgeridooarekin laguntzen dio. Beraz, ez daude bi didgeridoo berdin. Bakoitzak bere ahots propioa du.

Benetako didgeridooa eukalipto-zkoa izan arren, gaur egun, modu eta material askotakoak daude, plastikozkoak (pvc), banbuzkoak, tekazkoak, pitazkoak edo beiraz egindakoak, esate baterako.

### Sinbologia eta natura

Didgeridooa Ama Naturarekin



Iban Nikolai didgeridoo-a, Australiako musika tresna jotzen aditua da.

eta munduaren eta unibertsoaren sormenarekin erlazio naturik dago sinbolikoki.

Aborigenen ustez, Yurlunggur ortzadarraren sugarekin du zerikusia. Eta hau lurra eta zerua elkartzen dituen zubia izanik, mundu materiala eta arimen mundua, harremanetan jartzen ditu. Honela, didgeridooa arimen munduan sartzeko tresna bezala erabili izan dute aborigenek betidanik.

Honetaz gain, didgeridooaren hotsa naturan dauden soinuen guztien fusioa dela diote. Horrela, naturako soinuen imitatzeko ahalmena dutela diote itsasoaren soinua, adarren eta hostoen mugimenduak edo animalien ahotsak, adibidez. Naturak emandako instrumentua da didgeridooa, beraz natura eta intrumentuaren artean dagoen erlazio oso estua dela diote aborigenek. •



## Txintxarriren web itxuraldaketa

■ Betiko sailak, egunerokotasuna eta itxura berria [www.txintxarri.info](http://www.txintxarri.info) web orrialdean

Gezurra badirudi ere, ez dugu nahita egin. Honela suertatu da, TXINTXARRIren 750. zenbaki borobil honetan [www.txintxarri.info](http://www.txintxarri.info) web orrialdearen berritzearen berri ematea. Sarean jarraitzen gaituzuenok konturatuko zineten azaroan gure web orrialdeak itxura berria hartu zuela. Baina hori ez zen nahikoa. Pixkanaka-pixkanaka gauza berriak txertatu, arazo teknikoak konpondu eta azkenean [www.txintxarri.info](http://www.txintxarri.info) berriaren aurkezpena egiteko garaia iritsi da.

TXINTXARRIn argitaratzen den guztia, kirola, erreportajeak, albisteak, zorion agurrak... hau guztia, sarean [www.txintxarri.info](http://www.txintxarri.info) web orrialdean argitaratzen genuen. Baina web orrialdea aspaldikoa zen eta zaharkiturik zegoen dagoeneko.

Iazko udaberrian hasi ginen TXINTXARRIren web orrialdea diseinatzen eta Islada enpresarekin harremanetan gure diseinu eta nahiak gauzatu ahal izateko.

Azarorako web orria itxuraz aldatu genuen; aurpegi berriarekin batera aldaketa eta berrikuntza ugari pairatu ditu [www.txintxarri.info](http://www.txintxarri.info) web orrialdeak.

### Berrikuntzak

Egunerokotasunari eman nahi genion indarra, beraz horretarako azpiegitura frogatu egin behar zen; akatsak zuzendu, egunerokotasunak eskatzen dituen aldaketak egin... Guzti hau prest eta ondo egon denean egin dugu

aurkezpena. Atal berriak ere baditu web orrialdean: zorion agurrak argitaratzea, bakoitzaren urtebetetze egunetik aurrera, beraz, egunean bertan zoriontzeko aukera daukaze hemendik aurrera; paperean argitaratutako TXINTXARRI aldizkaria pdfetan ikusteko aukera eta argazki bildumak dira berrikuntza azpimarragarrienak.

*Betiko atalak txukundu eta garbiago jartzeaz gain, atal berriak ipini ditugu web orrialdean*

Gauzak honela, egunerokotasunari emango diogu garrantzia web gunean. Albisteak gertatzen diren bezain pronto, ahal den azkarren sarean irakurtzeko aukera irango duzue [www.txintxarri.info](http://www.txintxarri.info)ko jarraitzaileek.

Gainera, gordetzen zenuen elkarrizketa edo albiste interesgarria galdu baduzu, ez larritu, iazko

ekainetik honako aldizkariko papereko edizioen pdfak ere zintzilikatu baititugu [www.txintxarri.info](http://www.txintxarri.info)ren. Politikopoliki, iazko urte osoa eta aurrekoak sartzeko asmoa dugu.

Asteko guardiako farmaziak, herriko telefono interesgarrien zerrenda, kulturako eta kiroleko agenda, oharrak... betiko atalak ere modu garbiago eta txukunago batean jarri ditugu.

Hau guztiaz gain, jai eta ekimen ugariaren argazkien bildumak ikusteko aukera dago web gune berrian. Adibidez, Lasarte-Oria Bai! Kros herrikoian edo Euskararen 7. Maratoian parte hartu bazenuen ziur argazkiren batean agertzen zarela.

Bestelako loturak interesgarriak, ere txertatu ditugu, blog ezberdinetara, hiztegi-tara edo inguruko hedabideetara sartzeko aukera ere badago. •

### [www.txintxarri.iragarkilaburrak.com](http://www.txintxarri.iragarkilaburrak.com)

Euskarazko iragarki laburren azoka dugu [www.txintxarri.iragarkilaburrak.com](http://www.txintxarri.iragarkilaburrak.com) ataria. Eskualde bakoitzean bertako eskaera eta eskaintzak ikusi ahal izango dira mikroformatuen sistema honi esker. Aspaldi konturatuko zineten ostiraleko papereko edizioarekin batera iragarki laburren lau orrialde ere jasotzen dezutela. Berria irakurtzen duzuenok ere bertan topatuko zenituzten. [www.txintxarri.info](http://www.txintxarri.info) orrialdeak sarbide zuzena duzue iragarki laburren web orrialdera. Web orrialde honetan bakoitzak bere iragarkia kudeatu dezake: behar du-

nean aldatu, argazkiak txertatu, ezabatu behar ez bada... Erregistratzeko egin beharrekoak erraza eta azkarra da, izen-abizenak eta posta elektronikoa besterik ez dira sartu behar, ondoren pasahitza jasoko da posta elektronikoa eta ordudanik iragarkiak sartzeko eta kudeatzeko prest egongo zara.

Erabiltzailea norbanakoa edo enpresa izan daiteke eta enpresa bakoitzak bere tartea izango du orrialdealdearen ezkerrean bere logotipoarekin eta bertan klikatuz gero enpresa horren eskaintza guztiak agertuko dira. •



# Okupazioaren eta palestinar herriaren genozidioaren kontra

■ Konzentrazioa egingo dute gaur ostirala arratsaldeko 20:00etan udaletxearen aurrean

Nakba-ren (hondamendiaren) 60 urte bete dira. Geroztik palestinarrek euren lurraldean errefuxiatuak dira eta giza eskubideen etengabeko urraketa pairatzen ari dira, nazioarteko komunitatearen axolagabekeriaren aurrean. Honi gehitu behar zaio egun hauetan Israeliek Gazan burutzen ari den eraso militar berria. Hau guztia salatzen Lasarte-Oriako Gerraren Aurrakako Plataformak konzentrazio baterako deialdia egin du.

## TXINTXARRI

"Ezin dugu onartu sarraski hau. Israeliek milaka eta milaka bonba jaurti ditu Gazako lurraldeko populazioaren aurka; 1000 hildako baino gehiago eta 3500tik gorako zauritu eraginez, eta Zisjordanian izan diren protestetan egon diren hilketak eta atxilotaketak".

Azkeneko hirurogei urte hauetan Palestinako herriak israeldarregandik jasaten ari den erasoei azken sarraski hau gehitzen zaiola salatu du Lasarte-Oriako Gerraren Aurrakako Plataformak. "Bortizkeria etengabekoa da; hilketak, umilazioak, bizitzeko ezinbestekoak diren baliabideen gabetzea, ura, argindarra eta osasun zerbitzuak adibidez. Gazan, egun hauetan gertatzen ari den bezala, gizarte zibilaren kontrako nahitaezko erasoak. Eraso hauek Nazioarteko Eskubideak gizartearen kontrako krimeneztat jotzen ditu", gogorarazten dute, "Hala eta guztiz ere, Europar Batasunak, gure agintariekin barne, Israelekin dituen harremanak indartzu



Lasarte-Oriako Gerraren Aurrakako Plataformako kideek asteartean egin zuten konzentrazioarako deia.

do, eta Estatu Batuek Israel armaz hornitzen jarraitzen du, oso egoera kaskarrean bizi den gizarte akabatzeko erabiltzen diren armak".

Honen harira, "Israeleko estatuak ordezkatzeko duen sionismoak Gazako gizarte masakratu du berriro ere. Israeliek ez du Hamasekin

bukatu nahi, palestinar herriarekin baizik".

## Okupazioarekin amaitu

Gerraren Aurrakako Plataformako kideen ustez, okupazioaren amaiera beharrezkoa da segurtasuna eta bakea bermatzeko. "Horretarako gober-

nuek Palestinako herriak Israeleko estatuaren eskutik jasaten ari den setioa gaitzetsi baino zerbaite gehiago egin beharko lukete".

Sarraski hau salatzeaz gain, Udalei eta Eusko Legebiltzarrari "Israeleko gobernuaren ekintzak gaitzetsi dezaten eta gobernu genozida honekin harreman guztiak hausti dezaten exijitzen diegu".

Hau guztia dela eta, "okupazioaren eta palestinar herriaren genozidioaren kontra" lelopean gaurko konzentrazio-deia egin dute, arratsaldeko 20:00, udaletxe aurrean. •

## AL NAKBAREN garaia

**1947:** Nazio Batuen Erakunde-ko Batzarrak (NBE), 181 ebazpenean, Palestina bi Estatutan banatzeko plana onetsi zuen: Estatu arabiarra eta judua. Ondorioz, eremuaren %55 estatu israeldarrentzat izango da. Garai horretan populazioaren %30 ziren eta luraren %6aren jabe.

**1948:** Israeliek independentzia aldarrikatu eta NAKBari (hondamendiari) hasiera eman zion. 13.000 palestinar erail, 750.000 erbestera bultzatu eta 400 herri inguru suntsitu zituen.

**1967:** Israeliek eremu arabiarra okupatu zituen (Zisjordanian, Gaza, Jerusalemeko ekialdea, besteak beste). NBEk eremu horietatik tropak erretiratzeko exijitu zion Israel. Hauek muzin egin eta okupazioa gero eta bortitzagoa ezarri zuen.

**1987:** Okupatutako eremuetan Lehen Intifada piztu zen.

**1993-95:** AEBk Bake Akordio bat sustatu zuen. Israeleko estatuak berriz, eremu okupatuetan kolonien kopurua bikoiztu egin zuen. Kontrol militarra eta mugikortasunaren murrizketa areagotu zituen.

**2000:** Ariel Sharonen Mezkiten Lautadara egindako bisitak Bigarren Intifada piztu zuen.

**2002:** Liga Arabiarra bake ekimena eskaini zion Israel. Hauek ordea, Palestinako hiri guztiak militarki okupatu eta banaketa harreria erakitzen hasi ziren.

**2005:** Gazako zerrenda erabat itxi zuen Israel. •

*Israeliek Gazari ezarri dion isolamendu politiko, ekonomiko eta sozialarekin jarraitzen du eta 1000 palestinar baino gehiago erail eta 3500 zauritu ditu*

## M. Berasategi

### Kafeak



Beti dago aukera kafe on bat hartzeko



#### INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erth)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOREAREKIN e.a....

#### TEINA GABEAK

- MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a...

#### KAFE ARABIKOAK

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA



Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316 LASARTE-ORIA

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 17

10:00etan, Añorga-Ostadar (Emakumezkoen KDT F-11, txapeladunen fasea) Rezola, Añorgan.  
11:30ean, Sporting de Herrera-Ostadar (Infantil Txiki Kopa) Herrera, Donostian.  
15:30ean, Segura Goierri-Texas Lasartearra (I. Jubenila, kopa) Alustiza, Seguran.

15:30ean, Ostadar-Touring (Emakumezkoen kopa) Michelinen.  
17:15ean, Ostadar-Ilintxa (I. Jubenila, igoera fasea) Michelinen.  
17:15ean, Ordizia-Ostadar (II. Erregionala, igoera fasea) Altamira, Ordizian.

Igandea 18

10:30ean, Ostadar-Hernani (Kadeteen O. M., kopa) Michelinen.  
11:30ean, Beasain-Ostadar (Alebinak) Igartza, Beasainen.  
13:00etan, Beasain-Ostadar (Infantilen Ohorezko maila, kopa) Igartza, Beasainen.

FUTBOL 8

Larunbata 17

12:00etan, Lasarte BHI-San Patricio (Infantila, eskolarra) Michelinen.

FUTBOL 7

Larunbata 17

19:00etan, Niasa-Corpa-Avia Larramendi (III. Maila) Zubietan.

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 17

17:45ean, Aldaz H.K.-Suisaco Armenia (Euskal Liga) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

Michelin edo frontoian

10:00etan, Epel-ISU Leihoak  
10:50ean, Siglo XX-Izarra  
11:40ean, Ainhoa-Oria txiki  
12:30ean, Ilargi-Obelix  
13:20ean, Danena-Katanga  
14:10ean, Biyona-Tragoxka  
15:00etan, Morrison-Mayi  
15:50ean, Lurra XXI-HOB H.K.

Igandea 18

11:00etan, ISU Leihoak-Azpeitiko A.F. (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

Michelin edo frontoian

10:00etan, Oria krist.-Buenetxea  
10:50ean, Izkia-Okela  
11:40ean, Jordi-Viña del Mar

SASKIBALOIA

Larunbata 17

16:00etan, Ainhoa-Aluminios Francisco Alberdi (Gizonezko seniorrak) Kiroldegian.

PILOTA

Larunbata 17

16:00etan, Intza 2-Intza 3 (eskuz binaka, infantilak) Igeldon.  
16:00etan, Intza I-Euskal Giroa 2 (eskuz binaka, infantilak) Astigarragan.

JUDOA

Larunbata 17

Asteburuan, Leire Zubizarreta Madrilgo Komunitateko Nazioarteko kadete mailako txapelketan parte hartuko du Euskadiko selekzioarekin Fuenlabradan, Madrilen.

Igandea 18

9:00etan, LOKEko Asier Sagasti, Amaia Curiel eta Iñaki Elizaldek Gipuzkoako Junior Txapelketan parte hartuko dute Aritzabalde kiroldegian, Zarautzen.  
11:00etan, LOKEko alebinak Eskola kiroleko topaketa dute Aritzabalde kiroldegian, Zarautzen.

ATLETISMOA

Larunbata 17

Asteburuan, LOKEko atletak Gipuzkoako Txapelketa Absolutuan lehiatuko dira Anoetako Belodromoan, Donostian.

# Gipuzkoako txapelketa eta dominak LOKEra

## Beñat Elizaldek Espainiako Txapelketarako txartela eskuratu zuen

LOKEko judokak emaitza ezin hobek eskuratu zituzten, urtarilaren 11an, Errenterian lehiatutako txapelketan, kadeteek Gipuzkoako txapelketan eta Beñat Elizaldek Iparraldeko Espainiako Txapelketa sailkapen lehiaketan.

Kadeteak esku bete domin bueltatu ziren Lasarte-Oriara, urrezko domina bat, zilarrezko bi eta brontzezko beste bat eskuratu baitzituzten Gipuzkoako txapelketan.

Honela, Leire Zubizarreta dugu LOKE taldeko 70 kilo azpiko mailako Gipuzkoako txapeladun berria. Leirek borrokatutako lau lehiatan iponez irabazi eta puntuazio maximoa lortu zuen.

Baina Amaia Curielek ere txapeladun izateko aukerak izan zituen. "Gero eta hobeto ari da lehiatzen eta ondo aritu da txapelketan, pena epaileen azken momentuko erabakia dela eta, bigarren geratu izana," esan digu Gorka Aristegik.

Mutilak ere fin ibili ziren. "Mario Garrido ere hobetzen doa. Txapelketan bi borroka irabazi eta finala justu-justu galdu zuen. Beraz, bigarren postuarekin konformatu behar," azaldu digu LOKEko entrenatzaileak. Eta, honetaz gain, Esteban Martinezek hirugarren postua eskuratu zuen, "oso ondo borrokatu zituen bere hiruhia, bat irabazi eta beste biak gutxiatik galdu zituen".



Leire, ezkerrean, LOKEko Gipuzkoako txapeladun berria; Amaia atarian geratu zen.

Gainera, guztiek Euskadiko txapelketarako sailkapena eskuratu dute. "Orohar, oso lan ona egin zuten Gipuzkoako txapelketan," aitortu du Gorkak.

### Espainiako txapelketa

Goizean, berriz, Beñat Elizalde senior mailako Espainiako txapelketarako sailkapena lortu zuen Iparraldeko sailkapen lehiaketan.

Hiru borroka irabazi eta gero, LOKEko judokak A Coruñan lehiatuko den lehiaketarako txartela lortu zuen.

Gorka Aristegi entrenatzaileak azaldu digunaren arabera, "Borrokak oso gogorak izan ziren baina bera oso azkar ibili zen, borroka guztiak hasieratik kontrolatuz. Eta hor dauka saria, A Coruñan urtarilaren 30 eta 31n jokatu den Espainiako Txapelketarako txartela."

Lehenengo aldia da, senior mailan, LOKEko judoka batek Espainiako Txapelketarako sailkapena lortzen duena, horregatik Gorka Aristegik bizi zioritzen du Beñat Elizalde. •

## Kirol jarduera puntualentzako dirulaguntzen eskaera epea irekita dago

Lasarte-Oriako Udalak aurtengo ikastaroan burutuko diren kirol jarduera puntualentzako dirulaguntzak eskatzeko epea zabaldu du. Era berean, aurkeztu behar den dokumentazioa jakin arazi du.

Batetik, kiroltako jarduera puntualentzako dirulaguntzak ematea erregulatzen Udalaren ordenantzak ezartzen dituen oinarriak onartzeko konprometua; bestetik elkartearen datuak eta azkenik, jarduerari buruzko dokumentuak, hau da, jarduera antolatzeaz arduratzen den pertsona edo taldearen izena, antolatutako jardueraren gaitasun zehatua, parte-hartzaileen kirol-maila, jardueraren eremua, jardueraren parte-hartzaileak, kategoriak eta



adinak adieraziz, jarduerari ematen zaion zabalkundea, antolatuko den jardueraren diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu zehatua, aurreko urtealdian gaurkotutako jardueraren memoria justifikagarria eta aurreko urtealdiko aurrekontuaren likidazioa,

behar bezala identifikaturiko frogagiriak aurkeztuz.

Beraz, interesa duten kirol elkarteek urtarilaren 20a bitartean Udalaren erregistroan aurkeztu beharko dituzte eskaerak, astelehenetik ostiralera 9:00etatik 13:00etara. •

Kiroletako oharrak

LOKEko afariak

LOKEko loteria-billeteen zenbaki irabazleak ondorengoak izan dira: 2365 zenbakiak Aginaga Sagardotegian lau afari irabazi ditu eta 8400 zenbakiak, berriz, Txintxardin Beltxa jatetxean lau laguntzako afariak.

Irabazleek 656715700 (Morales) zenbakira deitu beharko dute dagozkien akreditazioak jasotzeko.

Udalaren kobratzea

Udalak barkamena eskatu nahi die abenduaren 31n egin zen

kobratze baten ondorioz kaltetuak izan diren udal kiroldegiko erabiltzaileei. Akatsa lehen bai lehen zuzenduko da kaltetuei kobratutako dirua bueltatuz.

Ostadarreko zozketa

Ostadarrek nekazal etxe batean bi pertsonentzako asteburu pasa zozketatu du eta zenbaki irabazleak "el niño" loteriako azken lau zenbakiak bat etorri dena izan da: 8920. Beraz, irabazleak Ostadarreko bulegotik pasa edo 943360433 telefonora deitu beharko du.



Egunero

**Erakusketa**

ILITZ OLANO MARTIN herritarra-  
ren "Gorputzeko umoreak"  
margoen erakusketa. Jalgi  
kafe-antzokian, egun osoan.



Igandea, 18

**Zinea**

PEREZ 2: GURE SAGUTXO HORI  
haurrentzako filma. Sarrera 3,  
15 euro. Manuel Lekuona kul-  
turetxean, 17:00etan. EUSKARAZ

Osteguna, 22

**Zinea**

LA ESCAFANDRA Y LA MARIPOSA  
filma Okendo Zinema Taldea-  
ren eskutik. Sarrera: 3,15  
euro. Manuel Lekuona kul-  
turetxean, 22:30etan, GAZTELANIAZ



Igandea, 25

**Zinea**

MISION EN MOCLAND haurren-  
tzako filma. Sarrera: 3,15  
euro. Manuel Lekuona kul-  
turetxean, 17:00etan, GAZTELANIAZ

**Oharrak**

**Nazimenduko lagunak  
eskerrak**

Nazimenduaren lagunak tal-  
deak eskerrak eman nahi diz-  
kie abenduaren 24ean egun-  
egindako eskean dirua eman  
zuten guztiei. Mila esker!  
Dirua Yankee II Nikaraguako  
herrixkara bideratuko da Ale-  
jandro Romoren bitartez.

**Bai Euskal Herriaren  
zozketa**

Bai Euskal Herriak antolatuta-  
ko zozketaren zenbaki irabaz-  
lea 11.352 da eta Arrasaten  
saldua izan zen.

**Erketzeko konpartsaren  
entsaio eguna aldatu da**

Orain 2 urte ekialdetik etorri-  
tako arabiarrekin eta beraien  
dantzeekin txundituta geratu  
baziren eta iaz, Rafaella  
Carrarekin gorputzeko hezur  
guztiak astindu bazenituen...  
ez pentsatu gehiago eta ani-  
matu zaitez gure karrozan  
parte hartzera, ondo pasako  
duzu eta nahi adina dantzatu.

*Didgeridoo-a Jalgiko Jam sesioan*

Aste honetako Jam sesioa berezia izango da, izan ere IBAN NIKOLAI izango da gonbidatua bere didgeridoo-arekin, beraz, musika eta soinu ezohikoak izango dira entzungai Jalgin. Samar taldean mugidurik dago Iban, eta bakarka ere bere emanaldiak eskaintzen ditu. Jalgi inguruko hainbat musikari izango dira abentura honetan parte hartzeko, horien artean Patxus (Baxua), Xuber (Perkusioak), Herrera (Ahotsa), Ozly (Ahotsa) eta jOhTo (Bateria).

GAUR OSTIRALA 22:30EAN  
JALGI KAFE-ANTZOKIAN

Ostirala, 30

**Kontzertua**

DONOSTIA ENSEMBLE taldeak  
eskaniko du kontzertua  
Danok Kide elkarteak antola-  
tutako IV. Topaketa Musikalen  
barruan. Brigitarren komen-  
tuan, 19:30ean.

Larunbata, 31

**Antzerkia**

ZER DUZU NEGARREZ, MARIE?  
haurrentzako antzerkia Marie  
Jonh konpainiaren eskutik.  
Sarrera: 3, 15 euro. Manuel  
Lekuona kulturetxean,  
18:00etan, EUSKARAZ.

Izena emateko Erketzeko  
lokaleria joan Zumaburu ikas-  
tolan. Entsaioak larunbatetan  
izango dira 15:00etatik  
16:30era urtarrileko 17, 24,  
31an eta otsaileko 7 eta  
14an.

**Euskal Karabana**

Lasarte-Oriako Saharar  
Herriaren Aldeko Elkarteak  
kideek Sahararen Aldeko  
Euskal Karabanarako elikagai  
bilketari ekingo dio eta hilak  
23an amaituko dute. Karaba-  
na honek elikagaiak errefuxia-  
tuen kanpamenduetara  
eraman nahi ditu: arroza,  
azukrea, lekadunak, sardinak,  
atunak eta konpresak. Ekimen  
honetan parte hartu nahi  
baduzue herriko eta Añorgako  
ikastetxeetan, supermerkatue-  
tan eta Emakumeen Zentro  
Zibikoan edukiontzia arkitu-  
tuko dituzue. Dirua bidali  
nahi duenarentzat kontu  
korronea ireki dute Euskadi-  
ko Kutxan, 3035 0080 94  
0800054177.

**Euskal Inauterien  
entsaioak**

Euskal Inauterien konpartsako  
antolatzaileak jakin arazi nahi  
dute entsaioak hasi direla.  
Hauek Landaberri BHI egoi-  
tzan (REM ohia) egingo dira  
astearte eta ostegunetan  
20:00etatik 21:00etara. Parte  
hartzeko entsaio egun batean  
agertzea besterik ez duzue,  
animatu!

**Buruntz-Azpiko batzarra**

Buruntz-Azpi Elkarteak Bazki-  
deen Batzar Orokorra egingo  
dute urtarrilaren 18an, igan-  
dean, 9:00etan. Bertan zuzen-  
daritza berria aukeratuko da.  
Hau dela eta, Buruntz-Azpiko  
zuzendaritzak bazkide guztiei  
deialdia luzatzen die bertan  
parte hartzera.

**Oharrak jartzeko:**

Tel.: 943 366858  
txintxarri@ttakun.com  
txintxarri@txintxarri.info  
www.txintxarri.info

**Eskutitzak**

**Sahararen Aldeko  
Euskal Karabana**

Sahararren egoera hobetze  
ezean okerrera doa. Berriro  
ere hau esatera beharurik  
aurkitzen gara.

Marokok okupatua duen  
sahararren lurraldean Giza  
eskubideen ukatzea gerta-  
kari ohikoa da. Honen adibe-  
dide dugu bi ikasleen  
heriotza. Bi ikasleak mani-  
festaldi baketsu batean  
(eserialdia) zeudela maro-  
koko kamioi batek gainetik  
pasa zien. Honez gain,  
beste hiru ikasle oso larriki  
zaurituak izan ziren.

Beste alde batetik, Erre-  
fluxatu Kanpamenduetan  
(Argelian), egoera oso  
larria da; orain dela bi hila-  
bete, garrantzi handiko  
euriteak jasan zituzten  
Auserd eta Smarako kanpa-  
menduetan, horren ondori-  
oz "etxeak", ikastetxeak  
eta osasunerako eraikinak  
behera etorri ziren. Orain-  
go honetan behintzat ez  
dira heriotzarik gertatu.  
Euri hauek oso larriak izan-  
da ere, ez dira 2006ean  
izandakoak bezain indar-  
tsuak izan, baina saharar-  
ren bizimodua okerrera  
egin du oraingoan ere.

Guizti hau gutxi balitz,  
politika arloan, Marokoko  
Erreinuak Estatu Espainola-  
ren laguntzarekin, Frente  
Polisarioaren hitz saiakerak  
oztopatu egiten ditu behin  
eta berriz, eta egoera hau  
geldialdi amaigabe batean  
ezin da bidegabekeri hau  
jasan.

Beste urte bat bezala,  
S.E.D.ekin elkartasunean  
dauden elkarteak martxan  
jarri dugu Sahararen Alde-  
ko Euskal Karabana ikaste-  
txe eta supermerkatuetan,  
hilaren 24ean amaituko da  
bilketa. Karabana honek  
lehen mailako produktu eta  
elikagaiak eraman nahi  
ditu errefuxiatu kanpamen-  
duetara, produktu hauekin  
batera ere gure elkartasuna  
eraman nahi diegu. Dirua  
eskaini nahi dutenentzat  
Euskadiko Kutxan kontu  
korronte bat ireki dugu,  
3035 0080 94  
0800054177.

Eta beti ere zuen lagun-  
tza eskatzen dugu, alde  
aurretik eskerrak emanaz.

**Lasarte-Oria Saharar  
Herriaren Lagunak**

**'OZTABIDE' auzo-  
elkarteen balantzea**

Arranbide-Oztaran "OZTABI-  
DE" auzo-elkarteen balan-  
tzea egin nahi dugu.

Zortzi bazkideen artean  
sortu genuen elkarte eta  
egun, 20 lagunok osatzen  
dugu elkarte. Hasieratik  
udala eta auzoen arteko  
bitartekariak izatea zen gure  
helburua, auzoetako arazo-  
ak, beharrak eta irtenbideak  
helaraziz, gure ingurua  
hobetzeko. Orain arte eta  
momentu oro, zerbitzu  
publikoko Martin Moreno  
zinegotziarekin informazioa  
trukatu dugu eta bide zuzen-  
etik goazela uste dugu.  
Momentuz, aparkatzeko  
arazoari aurre egiteko  
Arrambiden behin-behineko  
parking bat lortu dugu. Hala  
eta guztiz ere Arrambiden  
eta Oztaranen hainbat eta  
hainbat arazo soluzionatze-  
ko daude oraindik. Arazo  
hauek guztiak jasotzen  
dituen txosten bat eman  
genion Martín Morenori urte  
amaieran eta gure elkarteak  
egin dituen ekintzen berri  
emango zaie elkarte desber-  
dinen administrazioari.

Bestetik, egoera ekonomi-  
koak kezkatzen gaitu. Elkar-  
teen gastuei aurre egiteko  
dirua lortzeko beste bide  
batzuk bilatzera bultzatu  
gaitu: aurten lehen aldiz  
kaleratu dugu gabonetako  
loteria eta jendearen onspena  
izan du, dena agortu  
baita. Txema taberna (Zuma-  
buru) eta COVIRAN (Ozta-  
ran) supermerkatuaren  
laguntzak ezinbestekoak  
izan dira, beraz, denei esker  
mila.

Gure onspena eman  
nahi diogu hiri-busari, auzo-  
ak herriko erdigunera hurbil-  
tzeko modua errazten  
duelako.

Eskerrak eman nahi diz-  
kiogu udalari, bereziki  
J.M.Zaballos zinegotziari  
bilerak egin ahal izateko  
leku bat utzi digulako. Bide  
batez, auzokideei bileratan  
parte hartzeko gonbitea luza-  
tu nahi diegu: hilero 3.larun-  
batean bilera egiten dugu,  
lehen Oztaran ikastetxea  
izandako eraikinean, goize-  
ko 11etan. Beraz, bihar goi-  
ze-ko 11:00etan bertan  
ikusten gara.

**Oztabide elkarteak kideak**

**G**orputzeko umoreak izenburua jarri dio Ilitz Olanok erakusketari. Anjel Errok ateratako poema liburu batetik hartu zuen izena: "nolabait noizbehinka koadroak egiteko garaian ere umore batekin zaude edo beste batekin, inspiratuta zaudenean edo hego haizeak ematen dizunean egiten duzu honelako gorputz edo molde bat". Hamar bat koadro zintzilikatu ditu erakusketan.

Gustuko du margotzea eta horretan jarraitzeko asmoa du Ilitzek. Zirriborroak egin da dauzka, baina momentuaren zain egoten da. Eta momentu horretako sentimenduak irudikatzen saiatzen da. "Momentuan hausnarketa bat egin eta ateratzen denak jendeari ere zerbait ekarriko dio burura". Dena den, noizbehinka margotzen du "haize boladak ematen didanean".

**Inspiratzeko erabili al duzu Erroren liburu?**

Ez soilik erakusketaren izenburua aukeratzeko.

**Antzerkilari, musikari, zortzikoteko kide eta margolari ere bai. Artearen alde asko lantzen dituzun sortzailea al zara?**

Bai, banaiz piskat. Musika taldea duela urte batzuek utzi eta geldirik egon ezin naizenez, hutsune horiek nolabait bete behar ziren.

**Noiztik margotzen duzu?**

Duela bost urte inguru hasi nintzen zirriborro txiki batzuek egiten eta pintura ezberdinak probatzen.

**Zaletasuna berezkoa duzu, ala ikasi egin duzu?**

Ez autodidakta izatea gustatzen zait.

**Beste sorpresarik ba al daukazu gordeta zure bizitzako kutxatxoan?**

Beti egoten da sorpresarako lekua. Zer egingo dugu...

**Agian musika munduan beste proiekturen bat sortuko al da?**

Zama utzi eta hasi ginen beste proiektu batzuekin, baina utzita gaude. Gitarra udan lapurtu ziguten eta kitto. Gitarra akustikoa etxean daukat baina ez dut ia jotzen, ez nabil inspiratuta.

**Korrikalari eta mendigoizalea ere bazara,...**

Gustatzen zait kirola egitea. Batarengatik edo bestearengatik azken urteotan ezin izan dut gauza askorik egin,...

**Euskararen maratoiaren zein oroitzen daukazu?**

Oso ona. Kristoren adrenalina dosia eduki nuen. Izugarria. Oso aberatsa izan zen.

**Ilitz Olano**

# ‘Noizbehinka margotzen dut horretarako umorea dudanean’

Ilitz Olanok artearen alde ezberdinak jorratzen ditu: Landaberri taldean aktorea da, Zama musika taldean aritu zen lau urtez, 2000 urtetik 2004ra bitartean gitarra jotzen, ... gerora gitarra pintzel eta margoengatik aldatu eta koadroak egiten ditu. Urtarrilaren 31ra bitartean zabalik da Jalgi tabernan, hauetako lan batzuekin osatu duen erakusketa.



“ Musika taldea utzi eta hutsuneak nolabait bete behar ziren. Duela bost urte inguru hasi nintzen zirriborro txiki batzuek egiten eta pintura ezberdinak probatzen.



**Parranda eta taberna zalea ere bazara...**

Bai baina aspertzen ere hasi naiz. Hilabete behin egiten dut bat gogorra, gogora ekartzeko, baina zahartzen hasi naiz, nire gorputzak ez ditu jasaten. Ez ditut oso ondo hartzen biharamonak eta jaissten hasi beharko da.

**Basetxea tabernatik zer oroitzen duzu?**

Kaka zaharra. Ezagutu nituen zenbait pertsona eta bestela ezer onik ez zuen programa horrek.

**Ilitz izena nondik dator?**

Izena errusiatik dator, Vladimir Ilich Uliánov, Lenin, errusiar iraultzailea eta Piotr Ilich Chaikovski musikaria ezagunak dira. Pasaian ere bada mutil gazte bat Ilitz izenarekin. Politza da izena. Gurasoek arazoren bat izan zuten jartzerakoan, atzera eta aurrera ibili ziren garai hartan. Esaten omen zuten abizena zela.

Jon ALTUNA